# Markina Xemein




**Informazio puntuak** Puntos de información
www.markina-xemein.com

**Garraio publikoa** Transporte público
Bizkaibus autobusak *Autobuses Bizkaibus*
www.bizkaia.net · 902 22 22 65
Bilbo-Ondarroa/Ondarroa-Bilbo
Bilbo-Lekeitio/Lekeitio-Bilbo

**Taxi geltokia** Parada de Taxi

**Osasun etxea** Centro de salud (94 616 63 06)
Astelehenetik barikura 8:00-17:00 *De lunes a viernes*

**Udaltzaingoa** Municipales (656 79 11 44)
Astelehenetik ostiralera 8:00-22:00 *De lunes a viernes*
*Larunbat eta igandetan 9:00-21:00 Sábados y domingos*

**Farmazia** Farmacia

**Azoka** Mercado **Plazabarripea**
Eguen goizero *Todos los jueves por la mañana*

**Sorgin zulo gaztelekua**

**Lauzirika Herri Bolatokia** Bolera

**Jolasgunea** Parque infantil

**Kultur etxea** Casa de Cultura

**Kiroldegia** Polideportivo

**Liburutegia** Biblioteca

**Aterpetxea** Albergue

**WI-FI gunea** Zona WI-FI

**Santiago bidea** Camino de Santiago

**Ikusi beharreko puntua** Punto de visita obligatoria

**Bisita gomendagarria** Punto de visita recomendada

eus. cast.

markinaxemeinturismoa.eus

**Zigilua duten herriko dendetan eta tabernetan eskuragarri.**

**Disponible en comercios y bares de la localidad con el sello.**

## HISTORIA

Villaviciosa de Marquina izenarekin sortu zuen hiribildua 1355ean Bizkaiko Jaunak, Gipuzkoarekin marka edo muga bezala. 1952an, Xemein batu zen. Markina, hiri izaerakoa, lau kaletan egituratua eta harresitua, portale bakoitzetik errebaletara zabalduz hazi zen. Xemein, baserri izaerakoa, baserri eta auzotan sakabanatuta hazi zen, hirigune barik. Gaur egun, herriak hirigunea eta hamaika auzo ditu.



## BERTOKO PRODUKTUAK

Markina-Xemein nekazaritza eta baserri munduari oso loturik egon den herria denez, bertoko produktu ugari ekoizten dira: gazta, txakolina, sagardoa, kokoteak, ogia eta ortuaria, batez ere. Herriko dendetan eta eguneroko azokan aurkitu daitezke salgai. Urteko azoka nagusia, urriko bigarren zapatuan izaten da.

## PILOTALEKUA

"Pilotaren Unibertsitatea" lez da ezaguna, zesta puntako pilotari handien eskola izan delako. Horretarako eraikitako lehen pilotalekua XVIII. mendekoa da.

Jai Alai: Jai bat. Munduko kirolik azkarrena. Markina-Xemein mundu zabalean erreferente bihurtu duen kirola.

Frontoia zabalik egoten da goiz eta arratsalde. Entrenamenduak arratsaldez izaten dira.

## HISTORIA

Con la denominación de Villaviciosa de Marquina fue fundada la villa en 1355 por el señor de Bizkaia, como marca o frontera con Gipuzkoa. En 1952 anexionó a Xemein. Markina, de carácter urbano, estructurada en cuatro calles y amurallada, creció extendiéndose desde cada portal hacia los arrabales. Xemein, de carácter rural, creció diseminado en caseríos y barriadas, careciendo siempre de casco urbano. Hoy en día el pueblo está compuesto por el centro urbano y otros once barrios.

## PRODUCTOS LOCALES

Markina-Xemein ha sido desde siempre un pueblo ligado al mundo rural. Prueba de ello son la variedad de productos locales (queso, txakoli, sidra, cocotes, pan, hortalizas...) que se pueden encontrar en los comercios del pueblo, así como todos los jueves en el mercado. La gran feria anual se celebra el segundo sábado de octubre.



## 11 FRONTÓN

Es conocido como la "Universidad de la Pelota" por ser centro de aprendizaje de grandes pelotaris de la cesta punta. El primer frontón construido para tal fin data del siglo XVIII.

Jai Alai: Una fiesta. El deporte más rápido del mundo. El deporte que ha difundido el nombre de Markina-Xemein por todo el mundo.

El frontón suele estar abierto mañana y tarde. Ensayos: A las tardes.

## ARTEA KALEAN

Herrian zehar, hainbat mural eta eskultura daude, herriko artistek eginak gehienak. Aipatzekoak dira alde zaharrean eta inguruetan aurkitu ditzakegun egurrezko ateak, bakoitza herriko eragile bati eskainia, mugimendu sozial anitzen erakusgarri.

## ARTE EN LA CALLE

Paseando por el pueblo se pueden encontrar numerosos murales y esculturas, la mayoría creados por artistas locales. Merecen mencionarse las puertas de madera dedicadas a distintos colectivos, siendo muestra del rico movimiento socio-cultural del pueblo.










**1 GOIKO PORTALA. MUGARTEGI JAUREGIA EDO SOLARTEKUA.** Harresiaren portalea eta gaur egun ez dagoen Elexbarriako San Pedro eliza egon ziren plazan dago jauregi barroko hau, sasoi hartako arkitektura "doméstica residencial"-aren eredu eta egungo udaletxea. Lucas Longa arkitektoak eraiki zuen 1666an.
**GOIKO PORTALA. PALACIO MUGARTEGUI O SOLARTEKUA.** *En la plaza que ocuparon el portal de la muralla y la desaparecida iglesia de San Pedro de Eleixbarria, se halla este palacio barroco, modelo de arquitectura doméstica residencial de la época y actual Ayuntamiento. Fue construido en 1666 por el arquitecto Lucas Longa.*

**2 KARMENGO ITURRIA.** 1787an eraikia, Ilustrazioaren ideiei jarraiki. Zutabearen azpian lau obalo ditu, hiribilduaren armarriarekin eta bizkaierazko testuekin. Testuok Juan Antonio Mogelenak dira.
**FUENTE DEL CARMEN.** *Construida en 1787 siguiendo las ideas de la Ilustración, bajo la columna tiene 4 óvalos con el escudo de la villa y textos en euskera vizcaíno atribuidos a Juan Antonio Moguel.*

**3 KARMENGO ELIZA ETA KOMENTUA.** 1691n sortu zuten. Elizak, 1724an eraikia, barroko karmeldarraren ezaugarriak ditu. Hareharridun aurrealdea, hiru nabe eta gurutze latindardun zorua ditu, eta barruko aldean erretaulen apaindura aberatsa nabarmentzen da.
**IGLESIA Y CONVENTO DEL CARMEN.** *Fue fundado en 1691. La iglesia, construida en 1724, reúne las características del barroco carmelitano.*
*Con fachada de piedra arenisca, tres naves y planta de cruz latina, en su interior destaca la riqueza ornamental de sus retablos.*

**4 ANSOTEGI JAUREGIA.** Jauregi bilakatutako dorrea. Jatorrizkotik, Guen kaleara ematen duen aurreko aldea baino ez da geratzen. Bertan, bi ogiba-sarrera eta lau bao pare zabaltzen dira.
**PALACIO ANSOTEGI.** *Torre transformada en palacio, de su primitivo volumen queda solamente la fachada que da a Güen Kalia, en la que se abren 2 accesos ojivales y 4 pares de vanos apuntados.*

**5 ANTXIA EDO IBARRA DORREA.** Jauregi bilakatutako harresi-barruko dorre hau 1630eko erroldan aipatzen da. Harlanduzko aurrealde nagusi ederra daukalako nabarmentzen da, baina atzeko aldean itxura desberdina dauka: Goi Erdi Aroko dorre sendo batena.
**TORRE ANTXIA O IBARRA.** *Esta torre intramuros ya transformada en palacio se cita en la fogueración de 1630. Se distingue por su bella fachada principal de sillería, pero en su parte trasera presenta una hechura diferente, la de una recia torre altomedieval.*

**6 UDALETXE ZAHARRA.** 1521 eta 1542 bitartean eraiki zuten, baina hainbat berrikuntza izan zituen. 1636 eta 1645 bitartean, egurrezko habeak kendu eta hareharrizko zutabeak jarri zizkioten. Kapitel historiatua dauka, Carlos I.aren armarriarekin. Beheko solairuan plaza erara zabaldutako atari zabal bat dago. Kanpai-erlojuaren dorrea XIX. mendekoa da.
**ANTIGUA CASA CONSISTORIAL.** *Su construyó entre 1521 y 1542, pero conoció varias reformas. Entre 1636 y 1645 se sustituyeron las vigas de madera por columnas de piedra arenisca. Muestra un capitel historiado con el escudo de Carlos I. La planta baja la ocupa un amplio pórtico abierto a modo de plaza. La torre del reloj de campanas es del siglo XIX.*

**7 ANDONEGI JAUREGIA.** Lucas Longak egindako eraikin barrokoa. Aintzat hartu behar dira kareharrizko harlanduz egindako lanak, balkoiak eta armarria, eta baita erlaitza eta egurrezko teilatu-hegala ere.
**PALACIO ANDONEGI.** *Edificio barroco atribuido también a Lucas Longa, deben apreciarse los trabajos de sillería caliza, los balcones y escudo, así como la cornisa y el alero de madera.*



**8 IRURETAKO PORTALEA. ARKUPEA ETA ZELAIA.** Harresiaren antzinako hegoaldeko portalearen ondoan, Irureta portalea, Arkupe etxea dago. 1854ko eraikina da, neoklasikoa, zelaira begiratzen duen aurrealde arkupeduna, hiribilduko oso aspaldiko aisialdi guneari estimua erakutsiz. Ondoan, apur bat atzerago, Antxia Dorrearen atzeko aldea ikus daiteke.
**PORTAL DE IRURETA, EL ARKUPE Y EL PRADO.** *Junto al antiguo portal sur de la muralla (llamado el portal de Irureta) está la casa Arkupe; es un edificio de 1854, neoclásico, con fachada porticada que mira al Prado, demostrando su aprecio por el inmemorial lugar de esparcimiento de la villa. A su lado, ligeramente retrasada puede verse la fachada trasera de la Torre Antxia.*

**9 UBILLA ETXEA.** Abesuaren errebalean, fatxadan daukan plakan 1610. urtea ageri da. Fatxadaren goiko aldea geroagokoa da, baina barroko estilokoa erabat.
**CASA UBILLA.** *En el arrabal de Abesua, una placa en su fachada indica la fecha del año 1610. La parte superior de la fachada es posterior, pero plenamente inmersa en el estilo barroco.*

**10 MERTZEDEKO ELIZA ETA KOMENTUA.** Xemeinen 1547tik zegoen erlijiosoen komunitatea toki honetara etorri zen 1653an. Eliza 1793koa da. Komentu barrokoaren gainean adreiluzko hiru solairu eraiki zituzten. Gaur egun, ikastola da.
**IGLESIA Y CONVENTO DE LA MERCED.** *La comunidad de religiosas que existía en Xemein desde 1547 se trasladó en 1653 a este emplazamiento. La iglesia data de 1793. Sobre el convento barroco se levantaron 3 pisos de ladrillos. En la actualidad es una ikastola.*

**12 BIDARTE DORREA. MURGA JAUREGIA.** Erdi Aroko dorre bat ezkutatzen duen jauregi barrokoa da. Lehen solairuraino harlanduzkoa da, eta bigarren solairuan rococó estiloko pinturak daude. Zubidun etxartetik lorategi ondotik joan daiteke eta zubipe batetik Murgako basora sartu.
**TORRE BIDARTE. PALACIO DE MURGA.** *Es un palacio barroco que enmascara una torre medieval. De piedra de sillería hasta la primera planta, la segunda planta presenta pinturas de estilo rococó. Por el callejón se puede transitar junto al jardín y bajo un puente de acceso al "bosque de Murga".*

**13 SANTA KURUTZ ERMITA EDO ELIZATXIKI.** Antzinako santutxoa, hiribildu sarreran. XVI. mendean dokumentatua, bere burdin hesi barrokoak atentzioa ematen du. Parean daukan jauregiari atxikia dago.
**ERMITA DE SANTA CRUZ O ELIZATXIKI.** *Antiguo humilladero en el acceso de la villa, documentado en el siglo XVI, destaca por su reja barroca. Está asociada al Palacio que se halla enfrente.*



**14 BIDEGORRIA. URKO IBAIA.** Hiribildutik irten arte oinez jarraituko bagenu, abandonatutako errota batetik eta Urbitarte etxetik igaroko ginateke, Munibeko jauregiaren lursailera eta "Bidegorri"ra daraman harresira helduko ginateke, eta informazio panelen ondotik doan erreka jarraituz Ansotegi burdinolatik Etxebarriako Elizatera helduko ginateke, 2 km-ko paseotxoa eginez.

**BIDEGORRI. RIO URKO.** *Si siguiéramos caminando hasta salir de la villa, pasamos frente a un molino abandonado y la casa Urbitarte hasta llegar a la muralla que da acceso a la finca del Palacio de Munibe y al "Bidegorri" que, siguiendo el río junto a paneles informativos y pasando por la ferrería de Ansotegi nos llevará hasta la Anteiglesia de Etxebarria, en un paseo de 2 Km.*



**15 XEMEINGO ELIZA.** Bakartua, Markinako hiribilduaren eta Xemeingo elizatearen parrokia-eliza da. 1355ean Bizkaiko Jaunak dohaintzan emandakoa. Barroetako jaunekin gatazka luzea gainditu ostean, tenplu berria eraiki ahal izan zuen XVI. mendearen lehen erdian, "iglesias de salón" estiloan, kontrahorma handiekin eta argi bao gutxirekin. Ataria gotikoa du. Euskadiko Monumentu Nazional aitortua, barroko handitasunean luxuzko erretaula errenazentista dauka, bankua, lau solairu eta atikoa dituena; eta hiru kale eta lau kale arteko dituena, "erromatar era"ko dekorazioz estaliak. Horma-hobi batean, Xabier Ma de Munibe ilustratuaren hilobia dago.
**IGLESIA DE XEMEIN.** *Aislada, es la Iglesia parroquial común a la villa de Markina y Anteiglesia de Xemein. Donación del Señor de Bizkaia en 1355, tras superar un largo conflicto con los Señores de Barroeta pudo construirse el nuevo templo en la primera mitad del siglo XVI, en estilo de las "iglesias de salón" con grandes contrafuertes y pocos vanos de luz. Su pórtico es de traza gótica. Declarada Monumento Nacional de Euskadi, su gran volumen interior alberga un lujoso retablo renacentista, estructurado en banco, 4 pisos y ático; y con tres calles y 4 entrecalles que se recubren con característica decoración "a la romana". En un nicho se halla el sepulcro del Ilustrado Xabier Ma de Munibe.*

**16 HILERRIA.** 1851n ezaugarri neoklasikoarenpean eraikia. Forma errektangularra dauka; lau atari dauzka, lurperatzeko tokitzat diseinatuta eta atondoa eta elementu neogrekoak eta neoegiptoarrak dituen kapilla bat.
**CEMENTERIO.** *"Declarado Monumento Nacional de Euskadi, fue Construido en 1851 bajo el marchamo neoclásico. Tiene forma rectangular con 4 pórticos diseñados para lugar de enterramiento y una capilla con vestíbulo y elementos neogriegos y neoegipcios.*



**17 UHAGON KULTURGUNEA ETA GAYTAN DE AYALAREN JAUREGIA. PATROKUA.** Azken honek, bi zati ditu: bata neoklasikoa, XVII. mende amaierakoa, erreka ondoan; eta bestea, historizista, neobarrokoa, XX. mende hasierakoa, logia edo egutera batez lotuak. Loratagietan, Juan Antonio Mogeli (Xemeingo parrokoa eta euskarazko lehen eleberriaren egilea) eskainitako monumentua dago. Parean, lorategi eta gutzi, Uhagon kulturgunea, garai batean kuartela izandakoa.

**CASA DE CULTURA UHAGON Y PALACIO DE GAYTAN DE AYALA. PATROKUA.** *El palacio Patrokua, comprende dos volúmenes, uno neoclásico de finales del siglo XVII, junto al río y otro historicista, neobarroco, de comienzos del siglo XX, unidos por una logia o solana. En los jardines está el monumento dedicado a Juan Antonio Moguel, párroco de Xemein y autor de la primera novela en euskera. Enfrente, ajardinada, la Casa de Cultura Uhagón.*



**18 ARRETXINAGAKO DONE MIKEL ERMITA.** Ermitak, udaletxeak eta plazak eratzen dute Xemeingo Elizatea izan zen hirigune bakarra. Haraneko bi ibaiak batzen diren lekuan dago ermita. Arretxinagak "harriak datzaten tokia" esan nahi du. Ermitak jatorri hidrotermala duten haitzek osatutako formazio geologiko deigarria dauka. Euren artean, San Migelek lantza bat altxatzen du deabru-herensugearen aurka. Goi Erdi Arokoa du jatorria, eta ermitauak eta freilak (ordena militarreko erlijiosoak) izan zituen.
**ERMITA DE SAN MIGUEL DE ARRETXINAGA.** *El conjunto de ermita, Ayuntamiento y plaza constituye el único espacio urbano de la que fue la Anteiglesia de Xemein. La ermita se halla en donde se encuentran los 2 ríos del valle. Arretxinaga viene a significar "lugar donde yacen las piedras". La ermita alberga una llamativa formación geológica de rocas de origen hidrotermal. Entre ellas, San Miguel empuña una lanza contra el demonio-dragón. Su origen se remonta a la Alta Edad Media y tuvo ermitaños y freilas (religiosas de orden militar). La que hoy se ve, es una sobria ermita hexagonal, construida en 1740 para albergar las grandes piedras.*



**19 BARROETA DORREA ETA ERMITA.** Eragin handiko leinu honen etxe gotortua.
**TORRE BARROETA ETA ERMITA.** *Casa fortificada de este influyente linaje.*

**20 EPAITEGI ETA KARTZELA ZAHARRA.**
**ANTIGUO JUZGADO Y CÁRCEL.**

**21 ARTIBAI DORREA ETA KOMENTUA.**
**TORRE ARTIBAI Y CONVENTO.**

**22 ITURRIA ETA UDAL ARRANDEGIA. ARTIBAIKO ERREBALA.**
**FUENTE Y PESCADERIA MUNICIPAL. ARRABAL DE ARTIBAI.**

**23 ORUETA ETXEA. CASA ORUETA.**

**24 TXORROAK.** Umeentzako ur parkea, kiroldegi ondoko parkean, piknikerako mahaiak dituena.
**LOS CHORROS.** Parque acuático infantil, en un parque junto al polideportivo, con mesas merendero.

**25 UGARTE DORREA. TORRE UGARTE.**